

EUSKARAREN EGOERA SOZIALA ETA OFIZIALA NAFARROAN (1984)

Rosa Miren Pagola

*«Euskal-erriko seme on prestuai: Zuen lege zar beneragarriyak galdu
ziñituzten atzo. Zorigaitz aundi bat da galtze au.
Ez itzatzu, arren, galdu orain zuen izkuntz paregabea; lotzez beteko
zaituzte galtze orrec Jaungoikoaren eta Kondairaren aurrean.
Iruñan, 1884-garren urteko Garagarrillaren 12-an».*

A. CAMPION

Hitz bat ateratzen zait nire barnetik bertze deusen aintzinetik: mila esker, Euskaltzaindia, hain haundia delako Euskaltzaindiaren X. Biltzarraren irekieran eta erakunde eta jaun-andre hain gorenaren aintzinean hitz egiteko ohorea eta, bertzalde, baita ere, hain sakona delako nire poza Arturo Campion ospetsuaren omenaldian azaltzeko eskeini zaiten aukeragatik: izan ere, nire gaztaroko urtetan, Arturo Campion Jauna, neroni bezala nafarra, izan bait zen nire euskal nortasunean, bertze aunitzenetan bezala, hagitx eragin sarkorra izan zuena. Eta bertzerik gabe, guzti hau honela delarik, ager bezate nire hitzek Biltzar honi zor zaion begirune haundia.

Arturo Campionek, orain ehun urte, bere gramatikan honela zioen Hegoaldeko Goi-Nafarrerari buruz: «Este dialecto pierde diariamente terreno, el castellano lo acorralla desde las tierras llanas á los más altos valles».¹

Ehun urte, izan, ez dira gutti, baina ez aunitz ere hizkuntzen bizitzen araber, eta guttiago behar lukete euskarari buruz ariz gero, honen bizitza milaurteka zenbatzen bait da. Halaz ere, urte larriak bizitzen ari da azkenaldi hauetan, eta ehun urtek mila dirudie; eta berrogeitamar ere, eta hogeitamar, -ferietako edozein elekarik errango lukeen bezala- aski dira euskarak, mendeetako zirkinak balira bezala, ikaragarritzko atzerakadak jasan ditzan.

¹ A. CAMPION: *Gramática Bascongada de los cuatro dialectos literarios*, Tolosa, 1884.

Euskararen bilakabide hau, berriki utzi gaituen euskaltzain aipagarri Anjel Irigaray-k zioenez, frantzetsadaren ondoren hasi omen zen indartzen: «Esta pérdida del Vasc. en cientos de pueblos de la zona media, ocurrió en sólo cincuenta años, de 1813 a 1863 aproximadamente. Lo que no había ocurrido anteriormente en siglo y medio sino muy lentamente y sólo por el límite meridional».² Ehundaka herrik! Aisa erraten da, gero! Hala eta guztiz ere, Bonaparte Printzeak mendearen bukaera aldean eginiko euskalkien mapan, Hegoaldeko Goi-Nafarrerak Goñibartik Gareseraino hartzen zuen.

Fetxa haietatik ehun urtetara, 1962an, Blas de Fagoagak Euskaltzaindiko *Euskera* aldizkarian lan bat argitaratu zuen. Lan honetan, Iruñeko Apezpikutegiko eleiz-gidan jasotako datuetan oinarriturik, 1904ean Nafarroan euskaraz egiten zuten herrien zerrenda ematen zuen. A. Irigaray-k 1974ean, 70 urte geroago, beraz, lan hori azaltzen ari zelarik, hitz gutti aski ditu erran nahi duena bipil agertzeko: «Se ha barrido *totalmente* el euskara de 12 valles, desde Ollo-Goñi y Olza hasta Roncal, pasando por Lónguida y Arce (en su *mayor parte*) desde la Burunda y Araquil hasta Salazar; y *parcialmente* en 4, (Ulzama, Ymoz, Basaburua y Araiz)».³

Datu hauek, bere soilean ere, benetan ikaragarriak dira, eta ez dute aukearik ematen esaldi politetan astia galtzen ibiltzeko, bai, ordea, lanean ganoz hasteko.

Berriro ere Irigaray izan zen berak 1935ean bildutako datuak Sánchez Carrion-ek 1970ean jasotakoekin erkatu zituen, eta ohizko ondoriotara iritsi zen: «Resumiendo, en estos 38 años se han perdido para la vieja lengua, aparte del N. roncalés, la casi totalidad del Valle de Salazar (pues en 1935 se oía el euskara en Igal), val de Arce, Esteribar, Anué, Juslapeña, Gulina, Odieta, Atez, Araquil y la Burunda».⁴

Gero ere lanak egin dira, eta horietan Irizar-ek eta Siadeco-k Euskaltzaindiaren eraginez egindakoak izan daitezke aipagarrienak,⁵ baina gehiagorik ere bada, tokiz mugatuagoak badira ere. Hori bai, denak bide beretik datoz eta ondorio berdinetara garamatzate. Hitz batez esateko: euskara Nafarroan zatika erortzen ari da. Eta jakintsuak eta ikertzaileak eta egoera hau sentitzen dugunok, etxeko jaunaren eriotzean uluka ari den txakurra bezala gara: gure oi-huak gau ilunean galtzen dira.

Halaz ere, denak ez dira kontrako datuak, baikorrik ere bada, edo, guttinez, baikortzat har daitezkeenak, batez ere irakaskuntz alorrean. Baina, era

² APAT-ECHEBARNE, A.: *Una Geografía Diacrónica del Euskara en Navarra*, Pamplona, 1974, 28. or.

³ APAT-ECHEBARNE, A.: *Ibidem*, 23. or.

⁴ APAT-ECHEBARNE, A.: *Ibidem*, 16. or.

⁵ YRIZAR, P. de: «Los dialectos y variedades de la lengua vasca», *BSVAP* 1, 2, 3 (1973), 3-78. or.; Informe SIADECO: «Bases para un futuro plan de actuación en favor de la normalización del uso del euskara», 1978.

honetako datuak aunitzetan kaltegarri gertatzen dira: bere errealitate osoan ez aztertuz gero, iruzurti izan ohi dira.

Hogeitasei ikastetxe publikotan euskaraz irakasten dela edo berrogeitabatetan euskara ematen dela errateak iduri pozgarria sortarazten du. Baina ikusi behar dena da zein plangintza eta koordinaketarekin eramaten diren aintzinerak ekintza hauek, nolako materialak eta arreta espezializatua eskeintzen zaizkien, zer jarraipen egiten zaien, edo euskararen irakaskuntzari zenbat ordu eskeintzen zaizkion: izan ere, bi ordu astean mesedegarri izan beharrean kaltegarri ere bihur daiteke.

Beste ikuspegi batetik ere, zerbakiak sobera erabiltzeak gaitz egin diezaioke euskarari. Zerbakiek zerbakizko pentsamoldea sortzen dute eta geure hizkuntza eta komunikabide biziak ari garela ahantzarazten digute. Eta, gainera, zerbakiak onartzen ditugun neurrian, etsaiei ere egunetik egunera zorrotzagoa den nabala eskeintzen diegu.

Nafarroako zenbait bailada eta herrietan ibiliz gero, bizi-bizi sentitzen da norberaren hizkuntza ez daitekeela gehiengoaren eta guttiengoaren oinpean joka, hori muin-muinetik zuzenaren kontrako izango litzatekeela. Komunitate bateko komunikabidea ez da botutan sartzen, eta berez zor zaizkio laguntza denak, eta hainbat gehiago egoera hestuan arkitzen bada.

Politikoez ez dute hau ongi ulertzen, betiere zerbakien eta berehalako emankortasunaren arabera mugitzen bait dira. Ez dira ohartzen komunitateko hizkuntza joku politikotik at gelditzen dela.

Aristotelek zioen bezala, gizakia abere politikoa da, eta horrela den heinean hizkuntza ere politikoa bilakatzen da. Hizkuntzak gizartea kanpo eta barne asetzen du, urak belakia bezala, eta hori horrela izanik, egiazko politikoa gizarteari eskeintzen dion zerbitzua politikazko irizpideetara lotzen ez den bezala, hizkuntzari zor zaiona ere ez da irizpide horietara lotu behar. Londres-ko Hyde Park entzutetsuan ertzainak hizlaria defenditzen du, alde edo aurka duenentz kontutan hartu gabe. Gobernariak ere zuzentasun berdinez eta bereizkeriarik gabe begiratu behar dituzte bere herriko hizkuntza denak. Hizkuntzetara ez litzateke inor ikuspegi politikoz hurbildu behar. Jokabide horrek hizkuntzaren eta hiztunen eskukaketa berekin darama, eta laguntzeko asmoz hurbildurik ere egun eta munduko kaltea egiten dio hizkuntzari.

Ez da gaurkoa euskararen erabilera politikoa arpegiratzea. Beste edozein hizkuntzaz gauza bera esan daitekeen arren, eta hizkuntza indartsuagoa eta areago, gauza bat utzi behar genuke arras garbi: gu geu gara aurrenak erabilera politikoa hori salatzen eta horren kalteak jasaten. Eta aukera bikaina da hauxe Euskaltzaindiak puntu honetan duen jokabide eredugarria aldarrikatzeko, beti ere bere lana inoiz politikarekin nahas ez dadin. Irigaray jaunak bere egiten zituen Ponpeu Fabraren hitz hauek: «El pueblo está convencido siempre de que defender la lengua y la cultura es compatible con cualquier posición poli-

tica», eta baita Basarriren beste herrikoia go hauek ere: «amorru ikaragarria ematen dit euskara politikarekin naasteak».⁶

Legeek izan behar dute jokabideen oinarri, haiei eman behar zaie garrantzia. Orainartekoan, egia aitortu nahi bada, hezkuntz alorrari zegozkion aipamenak ezik, deus gutti arkitzen genuen legeetan. Eta hezkuntzakoak ere -70.eko Hezkuntz Lege Orokorra eta 75.eta 76.eko Dekretuak, hain zuzen- ez bereziki aldekoak. Nafarroan, eta hau ere erran behar da, hezkuntz autonomia-ri esker, 67.etik euskara zaindu eta indartzeko zenbait arau eman ziren. Baina, beti, hizkuntz ofiziala bat zen, eta, beraz, bertzeei uzten zitzaiena haren esku-zabalari esker baino ezin zitekeen izan.

Gaur egun Forua Hobeagotzeko Legea dugu. Atariko atalburuak bederatzik artikulu ditu. Artikulu horiek atarikoak direnez, bertze gainerako artikulu guzietan ere badute zerikusirik, nolabait, denetan sartzen dira. Bederatzigarrenak honela dio:

«1. El castellano es la lengua oficial de Navarra.

2. El vascuence tendrá también carácter de lengua oficial en las zonas vascoparlantes de Navarra.

Una ley foral determinará dichas zonas, regulará el uso oficial del vascuence y, en el marco de la legislación general del Estado, ordenará la enseñanza de esta lengua».

Lehena-lehen, hauxe erran behar da artikulu honi buruz: ezin da onartu inondik ere Nafarroa bi hizkuntzetan zatikatzea. Ezin da onartu, euskara Nafarroan alderdi batzutura mugatzea. Ezin da onartu nafartarren eskubideak ukatzea, horixe baizik ez delako, azken batean, artikulu horrek suposatzen duena.

Azken honetan agindu berria dute gure agintariek Nafarroan hizkuntzaga-
tik ez dela lurralde zatiketarik eginen.* Dena den, hori ez da aski. Legea beti lege, eta 9. artikulu hori sustraitik aldatu behar da, eta aldatzen ez den bitartean, hizkuntzari dagokionez, nafartarren eskubideak zapalduz egonen dira.

⁶ APAT-ECHEBARNE, A.: *Noticias y viejos textos de la 'Lingua Navarrorum'*. San Sebastián, 1971, 100-101 or.

(*) Urralburu Jaunak, Nafarroako Gobernu Foraleko Lehendakariak, hori garbi utzi zion Euskaltzaindiari, eta publikoki ere, Telebista Espainolean, gauza bera agindu zuen. Bertzalde, maiatzean izan zuen hizketaldi baten errandako hitz hauek jaso nahi genituzke bereziki:

«Con independencia de los demás problemas políticos, el tema del euskera es un tema navarro, que ha encontrado ya el camino institucional para su integración en las enseñanzas oficiales. Y por ese camino vamos a continuar», Deia, 1984 Maiatzak 13.

Besterik dugu, ordea, hizkuntzaren egoera sinkronikoa kontutan hartuz, tokian tokirako eman beharko den tratamendu berezia. Hori Hezkuntz eta Kulturako Sailburuak 1985erako emanen den Euskararen Lege Foralean zehaztea agindu berria du.

Nolanahi ere, euskara ofiziala izatean datza gakoa. Honen garrantzi izugarria bistan da, non eta, ofizialtasunak eskatzen duenez, euskara administrarritza publikoko sail guzietara hedatzen den.

Erabilera legez finkatzeak badu bere alderdi onik. Lege idatziak indar berezia du eta horrela erabilera hori ez da aurretik datozen indarren eta jokabideen mende uzten. Ez ahantz, orainarteko usuario bakarra gaztelararena izan dela. Ikuspegi sozialaren aldetik ere, oso mesedegarri gertatzen da hizkuntzaren poza eta harrotasuna pizten duelako. Orain arte bigarren mailan zokoratua egon den hizkuntzak bere duintasuna eskuratu behar du mintzaleengan eta gizartean. Dena den, azken urteotan aldaketa ttiki bat nabaritu izan dut: jendea bertze estima batez hartzen ari da bere hizkuntza.

Denok badakigu, hizkuntzarekiko iritzi ona galduz gero, alferrikako gertatzen direla asmo on eta ekintza gehienak. Zentzu honetan jokabide asmakorra eskatuko nuke, jendearen beldur eta susmo txarrak –euskaldunenak eta guztienak– bazter dezakean jokabidea. Jokabide gogorregiak, bertzalde, ez dugu uste onak direnik, kaltegarriak baizik, batez ere horrelako jokabideak herri xehean izaten dituen ondorio txarrak ikusi ondoren.

Entzungarriak dira Gaztelera Akademiako Manuel Seco ospetsuaren hitzak. «Romance de la conquista de Alhama» -ko bertsoez hasten da:

*«Cartas le fueron venidas / cómo Alhama era ganada:/
las cartas echó al fuego / y al mensajero matara».*

Eta Seco Jaunak honela iruzten du:

«Una de las víctimas más habituales de este deporte es el mensajero por excelencia: el lenguaje. De mil modos se le ha hostilizado y se le hostiliza un día tras otro; de mil modos se le violenta y se le mata para que no cumpla su misión... El mensajero, el medio de comunicación, el lenguaje que nos hace seres humanos, se ve convertido, sin culpa suya, en protagonista de conflictos, en víctima o en verdugo, cuando los verdaderos contendientes son los hombres que no saben convivir ni saben usar adecuadamente del instrumento supremo de convivencia que es, por naturaleza, toda lengua. Las lenguas son siempre inocentes, nunca agresivas, nunca tiránicas. El recelo, la agresividad y la tiranía son actitudes estrictamente humanas: de los señores, no de los mensajeros».⁷

⁷ SECO, M.: «La enseñanza bilingüe», «El futuro de la enseñanza en el País Vasco (1983)» gaiari buruzko mahai inguruan izan zuen eskuhartzea, Aula de Cultura «El Correo Español-El Pueblo Vasco, Bilbao, 1983, 81-82 or.

Gure kasuan ere hizkuntza bera izan behar da helburua, helburu bakarra, eta ez bertze asmo batzutarako aitzakia. Hau da, mezularia errespetatu eta ez erahil. Horregatik bilatu behar da jokabide ausarta, adoretsua, nahi balitz baita baikorra ere, baina beti gizalegezkoa. Honek inola ere ez du erran nahi aspalditik datozen ohitura txarretara makurtu behar denik; betiko kontu gogai-karria da, euskara ez dakitenen errespetuz eta gizatasuna zaintzeagatik erdara beti garaile atera ohi dela.

Orain arte erranak zahazten hasiko bagina, hiru alorretan edo mailatan arituko ginatke batez ere: Irakaskuntza, Administralgoa eta, azkenik, beti aitortu izan zaion eraginagatik, Elizari buruz ere mintzatu behar da.

Has gaitezen irakaskuntzaz. Datu faltarik ez da Batxiller eta Lanbide Heziketa aurreko maileri dagokienez.⁸ Ikastetxe publikoetakoak nahiko zehatz jaso dituzte Larraza, Nafarroako Ikastolen Elkarteko Idazkariak, eta Ruiz Castillo, Goizuetako Eskola Publikoko Zuzendariak. Diputazioko Euskara Zerbitzuak ere eguneratuak omen ditu bere datuak. Ikastoletakoak, berriz, Ikastolen Elkartek urtero jartzen ditu egunean. Hala eta guztiz ere, datu orokorren falta ageria da, beharrezkoak bait dira, erkaketen bidez, ondorio nagusiak atera eta euskarazko eta euskararen irakaskuntzaren ikuspegi osoa edukitzeko. Datuen bilketak berak ere garbi uzten du irakaskuntza mota hau bere kasa mugitu dela, benetako plangintza eta koordinaketarik gabe.

Ihazko datuen arabera, euskarazko irakaskuntza Nafarroako Eskolaurre eta O.H.O.-eko ikasleen kopurutik % 11'4-k hartzen du. Hauetatik gehienak, % 82-tik gora, ikastoletan dabilta eta gainerakoak eskola publikoetan. Euskara bera asignatura bezala bertze % 8 batek ikasten du. Ikastetxe pribatuetao daturik ez da ezagutzen. Hau bera ere nahiko esanguratsua da; edozein gisatan, badakigu gauza aunitzik ez dela egiten.

Ikus daitekeenez, datu apur hauek ere azaltzen dute euskararen irakaskuntzaren egoera murrizta, baina okerrena M. F. Zabaletak aitortzen duena da: «...pero por la problemática en que se desenvuelve esta enseñanza, estas cifras son más simbólicas que reales; pues en muchos casos las condiciones en que se lleva a cabo hacen que su eficacia sea mínima».⁹

Egoera hau gaingituko dela uste dugu, arestian aipatu den lege forala atezatzen denean, irakaskuntza ere lege horrek zuzendu eta bideratuko bait du. Forua Hobeagotzeko Legeak, gainera, badu irakaskuntzari bereziki zuzendutako artikulua, 47; alegia: «Es de la competencia plena de Navarra la regulación

⁸ LARRAZA LAKUNZA, J.L.-RUIZ CASTILLO, I.: *Euskararen arnas hestua irakaskintzan. La difícil situación del euskara en la enseñanza (offset).*

ZABALETA, F.M^a.: «Pluralidad lingüística en el sistema educativo de Navarra», Santiago de Compostela-ko 1984-ko Pedagogiako Kongresoan aurkeztutako txostenaren laburpena (offset).

Ikus baita ere: YRIZAR, P. 5. notan eta SIADECO ere nota berean.

⁹ ZABALETA, F.M^a.: *Op.cit.*

y administración de la enseñanza en toda su extensión, niveles y grados...» Euskal irakaskuntzari buruzko Lege Forala artikulua honekin elkartu beharko da, helburuak ongi finkatuz, ez bait dago euskararen irakaskuntza irakaskuntza orokorretik kanpora atera beharrik. Lege Foral horrek ez luke eragozpenik ipini behar euskara Nafarroako edozein tokitan irakasteko, eta bideak zabaldu beharko liriateke eskatzen den tokietan eskeini ahal izateko.

Han-hemenka badira hamaika lan orientabidez, aholkuz eta eskakizunez beterik; gure asmoa ez da, bada, gauza berririk erraterik, baina legea oraindik ateratzeko dagoenez gero, beharrezko jotzen ditugun bizpahiru artezari edo ardatz nagusi gogoratuko genituzke.

Lehenengo puntua kontutan hartuko genukeena irakaslegoarena izango litzateke. Ezin daiteke irakaskuntzan aldaketarik egin irakaslegoa alde aurretik ongi prestatu gabe. Euskaraz, ordea, premiak eraginda eta ezinbestez ez dugu beti lege hori bete. Euskaraz jakitea ez da aski euskara irakasten hasteko; eta irakaskuntzan hizkuntza aldatzea, komunikabide hutsa aldatzea baino hazitik ere gehiago da, batez ere Eskolaurreko eta Oinarrizko Hezkuntza Orokorreko adinetan. Horregatik, gogor eutsi behar zaio honi. Arlo honetan edozein hutsegite oso kaltegarri gertatzen da, eta hitzetik hortzera euskararen eta hezkuntz helburuen aurkako.

Irten berria da Euskal Herriko Komunitate Autonomoko Irakaslego Eskolei buruz Euskal Herriko Unibertsitateko HEZI-k eginiko ikerketa lan bat. Euskarazko prestaketaz ateratzen dituzten ondorioak Nafarroarako ere onargariak izan daitezke. Espezialitateak euskara hutsean edo hizkuntza bietan egiten diren arren, euskara eta euskaraz irakasteko prestaketa didaktiko berezia eta hobea eskatzen dute. Besteren artean honela diote:

*«Consideradas las necesidades, hay que pensar que se dedica mucho menos tiempo del necesario a la preparación en didáctica del euskara. Igualmente, hay que pensar que este profesorado necesita mayor preparación en euskara, fijando el nivel no por aspectos circunstanciales sino por las necesidades reales con las que se vaya a encontrar».*¹⁰

Irakaslegoari buruz ez dago gehiago ihardun beharrik, denok ezaguna bait dugu haren garrantzia. Bigarren ardatza, berriz, plangintza oso eta zehatzarena da. Euskaraz irakastera pasatzea edozein hezkuntz berritze baino aldaketa erabatekoagoa da, eta ez da posible probetxuz egiterik alderdi guztiak kontutan hartu gabe. Kurtsoz-kurtsoko eta mailaz-mailako plangintza egin behar da, helburuak, edukiak, orduak, materialak, arreta espezializatua, barnean sartuz.

¹⁰ URIBEETXEBARRIA, T.: «Situación general del euskara», in *Análisis de la estructura educativa en las Escuelas Universitarias de F.P. de E.G.B. en la Comunidad Autónoma Vasca*, Bilbao, 1984, 629-630. or.

Horrekin batera, bilakabidearen jarraipenak sekulako eragina du. Martxan ipintzea ez da aski, gero jarraitu egin behar zaio. Bilakabide osoa ebaluatu, helburuak zenbateraino erdiesten diren zainduz, eta beharrezko ikusten diren zuzenketak sartuz.

Bistan da guzti honek diru aunitz eskatzen duela. Pentsatzen dugu, hainbeste urtetan aurreratu denaren gain, orain aisago eskeiniko dela beharren arabera. Astiarena okerragoa da, ez baita astirik gelditzen. Trebetasunik behar izanen dugu arreta eta premia elkarrekin uztartzeko: ez mantsoegi dena ongi egiteagatik, ez itzulipurdika gudo ibiltzeagatik.

Administralgora pasatuz, lehen erran dugun bezala, ofizialtasunak hizkuntza zerbitzu denetara darama. Udaletxeek, Foru Aldundiak eta erakunde publiko denek (diru-etxe, seguru-etxe, denda, taberna, dantza-leku...) euskaraz ere eskeini behar dituzte zerbitzuak. Honetarako ez da aski, orain arte egin den bezala, plazak betetzeko euskaraz dakitenei puntuak ematea. Aurretik datorrigun egoera kontutan harturik, euskara ikasteko aukera eta laguntzak ere eskeini egin behar zaizkie, eta, ahal den neurrian, horretara bultzatu ere bai.

Herri euskaldunetan beharrezkoa da zentru ofizialak eta publikoak euskalduntzea, hortik sortzen delako gizartean hizkuntzaren estima eta, azken batean, euskal giroaren aldeko jokabidea. Ikusten denez, bide guziek eramaten gaituzte helduen alfabetatze eta euskalduntzera. Ezinbestekoa da ekintza hau ere antolatzea edo horrelako ekintzetan dihardutenei laguntzea. Forua Hobeagozko Legeak 44garren artikuluko 8garren puntuan kulturako konpetentzia osoak Nafarroari pasatzen dizkio. Honek erran nahi du gure esku dugula ekintza guzti hauek arautzea.

Euskal giroa komunikabideetan ere lortu behar da. Hizkuntza arazotan gaur ez dago aintzina pausurik ematerik egunkari, irrati eta, bereziki, telebistaren laguntzarekin kontatu gabe. Aukera hau hartuko nuke laguntza ofizial oparoa eskatzeko, orain arte eskeintzen dutena baino askoz gehiago eskeini dezaten.

Eta azkenik, ahalegin denak egin behar dira ikastetxeetako giroa orekatzeko. Mundu guziak salatzen duen bezala, kontzentrazioek gaitz haundia egin diote euskarari eta hau gertatzen da, batez ere, kontzentrazioetako giroa erdal-duna delako. Klaseetan euskara erabiltzeak beste eragin du giroak. Harreman arruntetan erdara bakarrik erabiltzearekin, bera bilakatzen da goi mailako eta komunikaziorako hizkuntza bakarra. Irakaslegoaren egoera aldatzea zaila da, baina ez daiteke elebitasun orekatu eta errespetuzkorik irakasle eta pertsonal elebidunik gabe. Ahal dena egin beharko da, mila kontraesanetan erortzerik nahi ez bada.

Orokorki hartuta beharko litzatekeen jokabidea Sánchez Carrión-en hitz hauetan egoki azaltzen da: «La adquisición de la lengua en el niño debe simultanearse, en lo posible, con una enseñanza de dicho idioma al adulto con el

que aquél entra en relación. En cualquier caso, debe estar sostenida por una política lingüística que sea individual, social y especialmente coherente».¹¹

Eta akitu baino lehen, euskararen iraupenean eta galpidean Elizaren eta herrietako apezten eraginaz mintzatuko gara. Ez da gaurko kontua: XVI. mendetik Elizak agertzen du elizkizunak herriaren hizkuntzan egiteko kezka. Gaurko mendera hurbilduz, «Euskeraren adiskideak» «Euskal-Esnalea» aldizkarian behin eta berriz agertzen dute apezten eragina hainbat herritan.¹² Eta egunera etorritz Sánchez Carrión-ek dioen bezala: «Los párrocos navarros son héroes desconocidos que con verdadero tesón, entrega y abnegación han luchado con todas sus fuerzas para defender nuestro tesoro lingüístico. Que la situación no esté en muchos puntos más empeorada, a ellos se lo debemos».¹³ Izan bitez hitz hauek gure eskerronik minenaren adierazle. Baina ez genuke erran gabe utzi nahi bertze herri aunitzetan izan duten eragin kaltegarria ere haundia izan dela.

Orain indarrean dirauten orientabide pastoralak 1974.go abuztukoak dira.¹⁴ Irizpide goresgarri eta funtsezkotan oinarritzen dira. Aurrena, euskara Nafarroako komunikabide dela erraten da; gero, berriz, gure historia eta kultur ondasun bezala ere hartzen da; eta azkenik, haren egoera larria ere bai, ukorik egin gabe, gainera, egoera horretan Elizak berak izan dezakeen erantzukizunari. Horregatik, dio, «egoki jokatu bearra dugu gure izkuntzaren geroari buruz».

Bigarren pausu bezala, ebanjelioa zabaltzeko agindua bete beharra aztertzen du, eta, bertan erraten diren hitz propiotara atxikiz, «erriari zor dion leialtasunagatik» eta «are geiago: gogoan izanik euskerak gure artean dituen oztopoak», garbi uzten du euskara erabiltzeko, begiratzeko eta indartzeko duen obligazioa.

Hirugarren sailean ekintzak arautzen ditu. Arauok dena edo gehiena hartzen dute, baina ez dira orokortasun elkorrean gelditzen, nahiko zehatz eta ekintza konkretura lotuak bait dira.

Hitz batez, erran daiteke orientabide horiek hagitz estimagarriak direla, azalez ez-ezik baita muinez ere, garbi azaltzen dutelako euskara gure hizkuntza dela eta eliz-behar denetan erabili behar dela. Eta guk ikusi dugunez, arauak betetzen ere saiatzen dira. Halaz ere, esan behar da zenbait tokitan arauen betebeharra itxura hutsetan gelditu ohi dela, esaterako, euskal meza-bat baino gehiago denean- ordu desegokitan ipiniz edo mezetako euskara guzia bizpahiru abestitara murriztuz.

¹¹ SÁNCHEZ CARRIÓN, J.M.: «El marco sociológico y espacial de una situación bilingüe», *La problemática del bilingüismo en el estado español*, Bilbao, 1980, 31. or.

¹² Abaurrea, Mezkiritz, Garaioa, Zilbeti, Orbara, Auritzen eta bertze batzutan. Ikus: *Euskal-Esnalea* XIX (1929) 52-53. or. eta 94-95.

¹³ SÁNCHEZ CARRIÓN, J.M.: *El estado actual del vascuence en la provincia de Navarra (1970)* Pamplona, 1972, 207 or.

¹⁴ Ikus: *Boletín Oficial de las Diócesis de Pamplona y Tudela*, n.º 9, año 117, 15 de Septiembre 1974.

Akitu dezagun behingoan. Badugu itxaropenik Nafarroako egoera berrian. Ezer eskatzekotan, eskatu beharrik ere ez dagoen zerbait eskatuko nuke: Forua Hobeagotzeko 9. artikulua hori, lehen erran bezala, aldatzea, eta sarri egingo den Euskararen Lege Forala ikuspegi hobereenez egitea; eta, horrez gain, euskararen arazoa agintari orok berea bezala izatea, izan ere horrela bait da.

Euskarak irrist egiten digu eskuetatik, eta mingarriegia da herri eta bailadetatik etengabe lekutzen ari dela ikustea. Bihotz haundi eta zahar bat hiltzen ari zaigu gure baitan eta horregatik onartezina egiten zaigu honelakoak entzutea: «Mendebalak bere altxorrik ederrena galduko luke euskara galduko balu». Guri Mendebalak axola gutti, gu eta gure herria hatsik gabe gelditzeko arriskutan dagoanean. Denok saia gaitzen, eta aterako dugu aintzinerara.